

Herri fatxak

TXILLARDEGI



FAMA denez, europar batzuk, Añuñemendiko muga pasa orduko, hurrengo korrida Irunen bertan zer ordutan den galdetzen hasten omen dira...

Guk irribarre gaizto batez entzun ohi ditugu horrelakoak: «gizajoa! oraindik ez daki Irun Espainia ez dela»... Baina Iparragirrek berak ere ez; Hendaian botatako «hara España» famatuak zalantza-izpirik gabe erakusten duenez.

'Xinplekeriak' esaten dugu ahapeka, eta kitto. Baina guk geuk ere berdin-berdin jokatzen dugu. Gure arteko gehiegik, adibidez, 'Vlaams Blok' delakoaren gorakada ikusita, hauxe diote: «Flandretarrak fatxak dira, Flandia herri fatxa da». Eta kitto. 1945ko maiatzean bere hegazkinean Kontxan iritsi zen León Degrelle nazia, ez zen flandretarra, waloniarra baizik. Alta, ez dut sekula entzun waloniarrak herri fatxa direnik. Ernest Mandel trotskista famatua, berriz, IV Internazionalako buruzagi ezaguna, flandretarra da.

Gaitz berberak jota bide daude kroaziarrak. Tito bera, kroaziarra zen; eta gaur egun serbiar inperialismo zapaltzailearen buruzagia, Milosevic: batera serbiarra eta PC-ko buru izana. Baina gerla aurreko 'ustrachi'ak izan zirela-ta, kroaziarrak guztiak fatxa. Eta Kroazia Askatua eskatzen duten guztiak ere bai.

Nik argudio horiek seriotan hartuko banitu, espainiarrak herri fatxa direla ondorioztatuko nuke. Francisco Franco, eta lagundu zuten militarrek, ez baitziren flandretarrak, eta ez kroaziarrak ere; espainolak baizik. Are gehiago: herri gutxiak aurkez dezake Espainiak bezalako militar fatxa zerrenda horniturik. Zer izan da Espainiako kondaira 'pronunciamento' ilara luzea baizik? Primo de Rivera, Serrano, Prim, Narvaez, Espartero... 'liberalago' batzu besteak baino, omen; baina denok kasernetatik 'manu militari' agintzen egonak.

Baina espainiarrak oso demokratikak dira. Jakina!

Herald Tribune

Gilotina negozioa

Datorren urtean 20.000 lanpostu kenduko dituela iragarriko du laster IBMk. Aurten beste 20.000 lanpostu ezabatzearen segida da hori. Konputagailu negozioan jarraitu beharrean, gilotina negozioari ekin dio orain IBMk.

(...)

Gaur egun inork ez du ametitzen langileak kaleratzen dituenik. Konpainia berregituratzen ari direla esan ohi dute. Edozela ere, ez da horren okerra. IBMk 40.000 lagun gal ditzaiteke, baina begira zenbat aparkaleku irabaziko dituen horri esker.



ART BUCHWALD

DEIA

Alternatiba ezkutua baina gailena

Uste dut azkenean «Olaberri proposamena» deituko zaion proposamena, filtratua izan zena —edo kenda, ontzat ematen bada guztiak zati berdina kendu zieteneko bertsioa eta nolabaiteko gaiztakeriarekin, ideien sortzailerik eta diputatu nagusiari— Ajuria Eneako bilera ospetsuan, azkenean balioko du bidezko akordioaren oinarri gisa eta guztiaren nahiak beteko ditu, aurretik iritziaren sortzen dituztenak asetzen baditu. Gregorio Ordoñezek esanak aitza-

HEMEROTEKA



GALLEGO & REY / DIARIO 16

kiatza hartuta esan daiteke, ridikuloa egin dezakegula, ETA pozik ez uztearen itxura egiten ahaleginagatik, eta hori baldintzatzen uzteko beste modu bat da. Ekimen hori EE bezain ahulduta dagoen alderdi bateko gizon batek gauzatzea, ondo ikusi behar dute guztiak, Añuñemendik ezik, noski.

JOSE FELIX AZURMENDI

EL MUNDO

Konstituzioaren 13. urtea

Lehenik, sistema politikoa aldatu behar da eta hori premiazko helburu batekin: herritarrek beren eginkizun protagonista berreskuratzen lortzea bizitza politikoan, gaur egun monopolizatua alderdi handien joko erabat itxian. Horrek, lehenik eta batez ere, hauteskunde sistemaren erreforma

egitea eskatzen du eta, baita, noski, instituzio aspergarri eta zentzugabe bihurtu den Senatuarena ere.

Erabat beharrezkoa da, gainera, Konstituzioaren erreforma egitea, Estatuaren egituraketari dagokionean. «Autonomien Estatu» deiturikoaren eskema gainditu egin du nazionalitate eta erregioen dinamika konplexuak, eta argi geratu da Espainiako Estatuak ezin izango duela bere barne batasuna behin-betirako ezarri, argi eta garbi federala ez den ikuspegi batetik planteatzea erabakitzen ez duen arte.

EDITORIALA

EL DIARIO VASCO

Nazionalismoa eta Konstituzioa

Ez da, bada, ospakizunen garaia. 1978ko erregimen konstituzionalako

bi berrikuntza handi zalantzan jarrita daude hemen Euskal Herrian. Estatuarekiko loturaren arazoari oraindik esperimental den formula eman zaio: eredu autonomikoa bere zehaztasunik ezari dagozkion tirabirekin doa aurrera, baina beti ere, zuzen bideratuko den itzaropen etengabearekin. Sistema demokratikoaren arauak eta pertsonen oinarriko eskubide batzuk, ordea, oraindik ere ez ditu onartzen Euskal Herriko gutxiengo sektore batek.

Gizakien memoriari, beti hain ahula, agian ez zaio gogoratuko duela hamabost urte ez zegoela hauteskunderik, Europatik kanpo geundela, alderdiak eta sindikatuek debekatuta zeudela, ez zirela errespetatzen pertsonaren eskubideak eta askatasunak, ez zegoela berezko marko instituzionalik, eta euskara egoera benetan txarrean zegoela. Agian batzuk pentsatuko dute denboraldi horretan ez dela ezer aldatu. Hori pentsatzeko eskubidea dute. Gauza bat bakarrik daukate horren aurka: errealitatea.

R. JIMENEZ ASENSIO

Urteburu

PIARRES XARRITTON



EGUNKARIA honen lehen urteburuaren bezperan lotzen natzaio ene aldiaren bete ohi dutan sail apur honen betetzeari. Aldeko lagunek urteburu horren gaia, luze ta zabal —zuzen den bezala— jorratuko baitukete, nik nere xokotik puntu bakar bat nahi dut altxatu.

Aspaldiko ene arrenkura hauxe izan da alabaina, gure Herri saindu honetan politikak eta politikariek zokoratzen ari zigitela euskara. Eta politikaz edo politikariez mintzo naizelarik, ez naiz ari gure aberriaren arerio edo etsaiez, baina maiz gure politikari abertzale sutsuenek. Ez da gaitza gaurkoa —eta Xalbador zenak bertso ederrak ontu zizkigun horretaz *Enbata* abertzale erdalduna sortu zitzaigun denboretan— ez eta ere eskuineko edo ezkerreko idejologiaren arazoa, denak erori baitzaizkigu tranpa horretan eragin kortasunaren edo 'efikazia'-ren izenean; hori dut eskutan, Baionako 'ezker abertzale' mugimendu berrienaren aldizkari berri-berriaren adibidea, izena euskaraz duena, eta funtsa erdaraz.

Hegoaldean berdin, badut uste, azken hamabost urte honetan bereziki, baina lehenago ere, *Euzko Deya*-ren egunetan, 'funtsezko' gaiak oro erdaraz emaitzen zirela.

EGUNKARIA agertuz geroz, iduritzen zait, gai funtsezkoak, Herriaren arazoak, eztabaida politikoak, egunero euskaraz erabiltzen hasi garela eta honi da bidea, bide bakarra, gure mintzairarentzat. Agian EGUNKARIArekin eta honi esker, euskaldun guztiak, zahar eta berriak, alde hortatik egingen dugu bide, 'hainitz urtez'!

Euskararen alde

Ni hamar urteko mutil bat naiz. Nire izena Luis da eta euskararen alde hitz egitera noakizue. Zure lagun batek euskara badaki eta erderaz hitz egiten badizu zuk ez egin kasurik. Zuk euskara baldin badakizu eta kalean erderaz hitz egiten baduzu, euskarak ez du balio ezertxo ere. Nik ere aitoritzen dut batzutan erderaz egiten dudala, baina bakarrik euskaraz ez dakitenekin. Mutil batek euskaraz ez badaki, zuk euskaraz hitz egiten behar diozu berak euskara ikas dezan. Arratzen gehienek euskaraz dakite, baina erderaz hitz egiten dute. Ni nire amari euskaraz irakasten ari naiz. Usansolon gehienek erderaz hitz egiten dute. Orain dela urte asko euskaraz hitz egitea debekatuta zegoen, Euskalerrri osoan, baina jendea euskaraz mintzatzzen. Orain, ordea, Euskara ikastetxeetan irakasten da eta jendeak erderaz berba

egiten du. Erdaldunek euskara ikasi behar dute. Erderaz hitz egiten badugu ez da egongo Nafarroa Oinez bezalako festarik. Gustatuko litzaidake denok euskara ikastea, eta gero euskaraz hitz egitea. Nik, beti nire aitarekin, amarekin, amonarekin eta osabekin euskararik ez dakitenez, erderaz hitz egiten dut.

Baina kalean, lantegietan eta toki guztietan Euskaraz egingo balitz nire sendiak ikasiko luke.

LUIS RODRIGUEZ GOMEZ
Usansolo
Bizkaia

Proposamen zirriborroak

HBk hasi berria duelarik bere Urrats Berri hausnarketaldia eta bizi dugun in-passe antzu hau dela kausa, interesgarritzat jotzen ditudan zenbait punturen zirriborroak plazaratzeari beharrezko deritzot, konplexu eta aurritzirik ga-

beko eztabaidarako aberasgarriak izango direla-koan, eta abertzale zein ez-kertiar nola demokratei soilik zuzendua:

— *Autodeterminazioaren* aldeko plataforma baterakoi eta demokratikoak Euskal Herriko geografía osoan, maila nazional, probintzial zein lokal-letan sortzea.

— Horrelako mugimendu batek jendearen parte hartzea bilatuko luke, masa borruka bihurtuz praxi politikoaren ardatz, Euskal Herrian hain ezagunak diren mugimendu sozialen antzera, baina alderdi politikoaren ekarpenak gehituz.

— Inoiz maila testimonialean geratu gabe eta beste borruka mota radikalagoak inolaz ere baztertu gabe, eguneroko borruka zibikoa izango luke ihardunbidetzat kontraesanak areagotu eta ilusioak piztearen ikuspuntutik begiraruta.

— Autodeterminazioa abertzaleon eskubidea izateaz gain, edozein demokratek ere onar deza-

keen eskubidea dela eras-kustaraztea, hau da, edozein gatazka mota konpontzeko gako askatasunen zabaltzean eta ez murriztean jarri behar delakoaren filosofia sustatu. Honek berekin ekarriko luke preso, deportatu eta errefuxiatuen arazo latzaren konponketa automatikoa.

— Plataforma hau ahalik eta lasterren *autodeterminazioa* lortzearen, hartara bilduko liritekeen alderdi politiko eta beste edozein motako erakunde zein pertsonen egongo litzateke osatua, nor bere autonomia mantenduz baina denok *autodeterminazioaren* aldeko mugimendu eta bilgune eraginkor hau indartzeko asmo tinkoak bul-tzatua, honen kontrako edozein maniobra uxatuz.

— Mugimendu soziale-tik zein alderdi politikotik kutsu eta osagarri izan dezakeen erakunde honek hauteskundeetara aurkez-teko posibilitatea aztertuko luke, protagonismo kolektiboa nagusituz politiko

profesional zein 'gure' bo-tere faktikoen interesen gainetik (alderdien aparatoak, ETA, Jaurilaritza, Estatu-tua, Konstituzioa...).

— Plataforma honen funtsezko oinarrietako bat Estatuari Autodeterminazioa onartu arte amore ez ematearren erabaki tinkoa eta aldaezina ikustaraztea izango litzateke.

A.L.
Beasain
Gipuzkoa

Oharra:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefona, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, zuzendaritzak bere esku izango du horretarako eskubidea.

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:
JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:
INMA GOMILA

Zuzendaria:
PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:
NEREA AZURMENDI
LUZIEEN ETXEZAHARRETA
INAKE URIA

Publizitatea:
KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapuri / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11